



Txernobilgo gaurik luzeena

Pili Kaltzada*

EEBBetako zientzilariek “super-gaua” hitzez izendatu zuten Txernobilen gertaturiko istripua. Duela 10 urtera arte, era horretako matxurarik gerta zitekeenik ez zuen inork uste eta, arrisku teoriko hutsa zela esaten zen. Gaur egun ordea, gaurik luzeena izan zen horretaz zerbait gehiago dakigu. Ez askorik, egia aitortzeko.



Apirilaren 29an, Suediako ikertzaile-talde bat sistematikoki egin ohi diren erradioaktibitate-neurketak egiten hasi zen. Noizean behin egiten den saio horietako bat, baina egun horretan behatutakoak ahoa bete hortz utzi zituen guztiak. Neurgailuek ezohizko gorakadak isladatu zituzten eta itxura guztien arabera, inguruko zentral nuklearren batean istripua gertatu izana salatzen zuten datu horiek. Hasiera batean, Suedian bertan hasi ziren ezohizko gertara horren arrastoaren bila, baina berehala baztertu zuten aukera hori. Egundak batzuk geroago, orduko Sobiet Batasuneko gobernuko iturriek baieztatu zutenenez, Suediako ikertzaileek atzeman zuten poluzioa atzerritik zetorren: Txernobiletik.

Suediako ikertzaileak erabat harritu zituen matxura horrek halaber, harridura sortzen segitzen du. *Greenpeace* taldeak sala-

tu berri duenez, istripua gertatu orduko eman ziren datu beldurgarri horiek ez zuten egiazki gertatua adierazten. Hau da, leherketak askatu zuten erradioaktibitatea esan zena baino askoz handiagoa izan zen. Azken datuen arabera, Hiroshima eta Nagasaki jaurti zituzten bi bonbek batera sortutako erradiazioa ere gainditu egin zuen Txernobilgoak. 50 milioi kurio aipatu ziren istripuaren larritasuna baieztatzeko; *Greenpeace*ren iritziz, 140 milioi kurio inguru askatu ziren. Matxurak eragindako poluzioak 100.000 km² baino gehiagoko hedadura lortu zuen.


Eta zu irakurle, non eta, zertan ari zinen istripuaren berri gertatu zenean? Azken hilabete hauetan, maiz entzun den galdera da hori. Gutariko batzuk ondo gogoratuko dute une hori, albiste ikaragarri hura iritsi zitzaigun momentua. Alabaina, askorentzat erabat ulertezinak ziren orduan

eman ziren datuak eta informazioa. Urte batzuk iragan behar izan dira gertatuaren larritasunaz jabetzeko. Duela hamar urte, herrialde batzuk poluitutako inguruetik zetozen zenbait produkturi bere mugak itxi egin zizkietela gogoan izango duzu apika. Eta hortik aurrera, gauza handirik ez. Europa osoko herritarrek haizearen norabideez eta indarrez ordura arte ezkutuan gordetako jakinmina erakutsi zuten.

Gertatuari buruz, zer dakigu?

Gau luze horretan gertatu zenari buruz, informazio gutxi kaleratu zen hasieran. Gerora datu gehiago iritsi zen, baina apirileko egun horretan egiazki jazo zenaz, gaur-gaurkoz interpretazio desberdinak entzun daitezke.

Baina, zer gertatu zen? Labur esanda, zentralako erreaktore



Dagoeneko hamar urte iragan dira Txernobilgo istripu larri hura gertatu zenetik eta oraindik benetan jazo zenari buruz ez dago datu fidagarriarik. Populazioarengan gertaera horrek izan zituen eraginak ez dira berehala ahaztuko.

batean hozketa-sistemaren hutsegite konplexu baten ondorioz, erreakzioa kontroletik kanpo gertatu zen; horren ondorioz, itxuragabeko beroketa sortu zen eta horrek erreaktorearen azpialdea urtzen hasia ekarri zuen. Fisio-erreakzioa baretzeko erabiltzen diren grafitozko hagek su hartu eta eztanda kimikoa gertatu zen. Leherketa horrek eraginda, erreaktorea babesten duen egitura bigundu eta barruko material erradioaktiboa, hauts- eta gas-eran kanporatu ziren. Hortik “hodei erradioaktibo” malapartua. Erreaktorearen barruan piztutako sua itzaltzea lan itzela izan zen. Hala eta guztiz ere, zentralerako langileek nola edo hala amatazea lortu zuten. Eta *nola edo*

*hala diogu, zeregin horietan aritu ziren langileei egindako osasun-azterketak ez direlako orain arte ezagutzera eman. Eta Greenpeacek eman dituen datuen arabera, 800.000 langile inguruk hartu zuten parte matxura gertatu ondorengo garbiketa-lanetan. Eta bururatzen zaizkigun galdere-tarako, tamalez, erantzun errazik ez da aurkitzen. Zentralaren inguruko segurtasun-baldintzak egokiak al ziren? Aurreikusita al zegoen inongo kontrol-programatan era horretako istripu larriarik gerta zitekeenik? Geroak erakutsi digunez, Ukraina, Bielorrusia eta Errusiako zentral nuklearren segurtasun-egoerak zer pentsatu franko eman beharko liguke guztioi. Nolanahi ere, zaila zen oso era horretako matxura gertatuko zenik aurreikustea. Segurtasun Nuklearrerako Batzordeak 1978an egin zuen bilkuran gai honi buruz luze eztabaidatu zen; esandakoa biltzen duen txostenak argi eta garbi adierazten duenez “*istripu teorikorik larriena erreaktorearen barruan dagoen erreagia urtzea litzateke, hozketa-sistemaren hutsegite bat medio. (...) Segurtasun-sistemak bikotzak dira eta beraz, batek huts eginez gero, bigarrena automatikoki sartuko litzateke indarrean. Guzti hori dela eta, horrelako istripuren bat gertatzeko dagoen probabilitatea erabat arbuigarria da*”.*

Hamar urte eta gero...

Vienan “Txernobil 10 urte eta gero. Ondorioak” izeneko goi-biltzarra burutu zen apirilaren hasieran. Matxurak kaltetutakoek dute, zalantzarik gabe, zeresanik handiena, baina mendebaldeko potentzien artean, interes handia sortu du topaketa honek. Bilerak besteak beste, iritzi publikoaren aurrean informazio gehiago azaltzeko balio izan du, bai duela 10 urte gertatu zenaren inguruan eta baita —eta hori da garrantzitsuen,

apika— istripuak epe ertainera sortu dituen ondorioei buruz.

Txernobilaren inguruko biztanleen osasun-egoera bereziki kezka-garria da. Adu guztiak bat datoz tiroideko minbiziaren intzidentzia izugarri ugalduta dela esaterakoan. Hazieran eta garapenean eragiten du tiroideak eta metabolismoaren funtzionamendua oker dezake. Orain arte ukatu egin bada ere, Txernobilaren inguruan bizi ziren haur gehienek tiroideko minbizi dute edo izango dute hurrengo urteotan. Oraingoz, 8.000 umetarik batek garatu du jadanik minbizi-mota gaitzo hau. Zentralak igorri zuen erradiazioa izan ere, era askotara hedatu zen. Umeengan aire-poluizioak baino kalte handiagoa sorrarazi zuten poluitutako elikagaiak, bereziki barazkiek eta esneak. Tiroideko minbiziak gain, malformazioak eta atrofia dira Txernobilek belaunaldi berriei utzi dien ondarea.

Osasun-ondorioak garrantzitsuak dira, noski. Hala ere, istripuak sortutako kalte psikologikoak, ekologikoak eta ekonomikoak ezin bazter daitezke. Nekazaritzan oinarritutako gizarte-ereduak ziren nagusi inguruetan eta istripuaren ondorioz, poluitutako lurrak utzi egin behar izan zituzten, 375.000 lagun inguruk utzi egin behar izan zituzten bere lurrak eta etxeak, zuten guztia; eta, okerrago izan daitekeena, 270.000 pertsona bizi dira gaur egun poluituriko eskualdeetan.

Vienako goi-biltzarretik ezer garbirik atera bada, Txernobilgoa Bielorrusia, Ukraina eta Errusiako arazoa baino zerbait gehiago dela aitortzea da. Mendebaldeko estatuen laguntza nahitaezkoa da istripuaren kalteak leuntzen hasiko badira. Eta kotuan izan dezagun azkenik, eskualde horretan badirela Txernobilgoa bezalako beste 12 zentral nuklear.



* ZETIAZ - Elhuyar